

2023KO EKITALDIKO AURREKONTU-PROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

DESKRIBAPENA

Txosten honen xedea da EUDELen 2023ko ekitaldiko aurrekontua aztertzea. Horretarako, esan behar da aurrekontu hau egiteko kontuan hartu dela Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei aplikatu beharreko aurrekontu-egitura.

Txosten honetan, lehenik eta behin, diru-sarreraren eta gastuen analisi ekonomikoa egiten da atalka, eta, ondoren, gastuen azterketa programaka garatzen da.

EUDELen 2023ko ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu parekatua 3.407.793,71 eurokoa da; hau da, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenak baino ehuneko 13,56 handiagoa.

Gastuen sailkapen ekonomikoan, lotura juridikoa atal mailakoa da; eta gastuen programen araberrako sailkapenean, berriz, gastu arloaren mailakoa.

Txosten horri sarrera eta gastuen aurrekontuaren egoerak erantsi zaizkio. Konparaziorako, 2022ko ekitaldirako onetsitako aurrekontuaren hasierako aurreikuspenei buruzko datuak sartu dira.

DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN ANALISIA

2023ko ekitaldirako diru-sarreraren aurrekontu parekatua 3.407.793,71 eurokoa da. Aurreko ekitaldiko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenekin alderatuta, aurrekontua ehuneko 13,56 handitu da.

Hona hemen 2023ko ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontua atalka banakatuta eta 2022ko aurrekontuarekin alderatuta:

* Zenbatekoak, eurotan adierazita

		HASIERAKO AURREIKUSPENAK 2022	HASIERAKO AURREIKUSPENAK 2023	BAR %	% 2023ko aurrekontuarekiko
3. ATALA GUZTIRA	Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	15.300,00	22.500,00	% 47,06	% 0,66
4. ATALA GUZTIRA	Transferentzia arruntak	2.928.256,62	3.321.396,08	% 13,43	% 97,46
	Zerga itunduen partaidetza	2.405.844,61	2.810.984,07	% 16,84	% 82,49
	Bazkideen kuotak	291.792,01	291.792,01	% 0,00	% 8,56
	Gobernantza proiektuaren ekarpenak	50.820,00	50.820,00	% 0,00	% 1,49
	Diru- laguntzagatiko sarrerak	179.800,00	167.800,00	% -6,67	% 4,92
5. ATALA GUZTIRA	Ondare-sarrerak	57.286,57	63.897,63	% 11,54	% 1,88
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		3.000.843,19	3.407.793,71	% 13,56	% 13,56

2023ko ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontuaren alderdirik azpimarragarrienak honako hauek dira:

3. atala. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk.

Atal honetan aurreikusten dira, nagusiki, EUDELeK IVAP-HAEEekin batera antolatzen duen Toki Zuzenbideari buruzko Euskal Mintegiaren programan izena emategatiko diru-sarrerak, 20.000 eurokoak. EUDELeK aurreikusitako gastuaren ehuneko 20ko ekarpena egitea aurreikusten da.

Halaber, atal honetan 2.500 euroko beste diru-sarrera batzuk ere aurreikusten dira.

4. atala. Transferentzia arruntak.

Diru-sarreraren atalik garrantzitsuena da, diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 97,46 hartzen baitu. Transferentzia arruntan aurreikuspena ehuneko 13,43 handitu da 2022ko ekitaldiko hasierako aurreikuspenekin alderatuta; beraz, 2023ko ekitaldirako 3.321.396,08 euroko diru-sarrerak aurreikusten dira kontzeptu horrengatik.

Udal Finantzaketarako Foru Funtsen ehuneko 0,15etik datozen diru-sarrerei dagokienez, lurralde bakoitzeko Finantzen Lurralde Kontseiluetan zehaztutako 2023ko ekitaldiko hasierako aurreikuspenak kontuan hartuta kalkulatu da.

Taula honetan daude zehaztuta zerga itunduetan izandako parte-hartzeari buruzko datuak, lurraldeka banakatuta:

* Zenbatekoak, eurotan adierazita

			HASIERAKO AURREIKUSPENAK 2022	HASIERAKO AURREIKUSPENAK 2023	Aldaketa % 2023 / 2022
416		Foru-aldundiak eta beste foru-erakunde batzuk	2.405.844,61 €	2.810.984,07 €	% 16,84
	41601	Arabakoa. Zerga-partaidetza zehatza.	314.907,23 €	395.457,91 €	% 25,58
	41602	Bizkaikoa. Zerga-partaidetza zehatza	1.321.623,60 €	1.501.441,77 €	% 13,61
	41603	Gipuzkoa. Zerga-partaidetza zehatza.	769.313,78 €	914.084,39 €	% 18,82

2023rako ez da aurreikusten igoserarik udal-bazkideen kuotetan.

Udalen finantzaketarako foru-funtsetan parte hartzea da EUDEL-en aurrekontuaren baliabiderik garrantzitsuena, diru-sarrera guztien ehuneko 82,49 baitira. Bestalde, bazkideen kuotak diru-sarrera guztien ehuneko 8,56 dira.

Bestalde, atal honetan aurreikusten dira gobernanzako bikaintasun-proiektuarekin (ELOGE) jarraitzeko diru-sarrerak, eta parte hartzen duten udalen ekarpenetan gauzatzen dira, 50.820 euroko zenbatekoan.

Transferentzia arrunten atalean, halaber, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek eta Emakundek hitzarmenak eta dirulaguntza izendunak formalizatzegatiko diru-sarrerak aurreikusten dira; aurrekontu osoaren ehuneko 4,92 osatzen dute:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarena, udaletan euskararen erabilera sustatzeko planak diseinatu eta garatzeko, 28.000 euro zenbatekoarekin.
- Emakunderen 84.800 euro aurreikusi dira Berdinsarea sarerako eta Berdinbidean programarako.
- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarena; etorkinentzako itzulpen-zerbitzurako 55.000 euroko zenbatekoari eustea aurreikusten da.

5. atala. Ondare-sarrerak.

Ondare-sarreraren aurreikuspena 63.897,63 eurokoa da, eta bat dator Bilboko Colón de Larreategi kaleko 35. zenbakian dagoen EUDELen jabetzako higiezinaren alokairu-kontratuarekin.

GASTUEN AURREKONTUAREN ANALISIA

2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontua 3.407.793,71 eurokoa da, hau da, aurreko ekitaldiko aurrekontua baino ehuneko 13,56 handiagoa.

Hona hemen 2023ko gastu-aurrekontuaren sailkapen ekonomikoa eta 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenekiko alderaketa:

* Zenbatekoak, eurotan adierazita

		HASTAPENEKO AURREKONTU KREDITUAK 2022	HASTAPENEKO AURREKONTU KREDITUAK 2023	BAR %	% 2022ko aurrekontuarekiko
LEHEN ATALA GUZTIRA	Langile-gastuak	1.539.787,98 €	1.609.106,04 €	% 4,50	% 47,22
2. ATALA GUZTIRA	Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa	1.011.695,35 €	1.468.283,17 €	% 45,13	% 43,09
3. ATALA GUZTIRA	Gastu finantzarioak	7.348,85 €	44.340,00 €	% 503,36	% 1,30
4. ATALA GUZTIRA	Transferentzia arruntak	22.636,50 €	22.636,50 €	% 0,00	% 0,66
6. ATALA GUZTIRA	Inbertsio errealak	21.000,00 €	32.000,00 €	% 52,38	% 0,94
9. ATALA GUZTIRA	Pasibo finantzarioak	398.374,51 €	231.428,00 €	% -41,91	% 6,79
GASTUAK GUZTIRA		3.000.843,19 €	3.407.793,71 €	% 13,56	% 100,00

1. atala. Langile-gastuak.

1. atalean, 2022ko ekitaldirako aurreikusitako zenbatekoa 1.609.106,04 eurokoa da, gastu osoaren ehuneko 47,22; eta ehuneko 4,5eko hazkundera izan du, aurreko ekitaldian aurreikusitako zenbatekoarekin alderatuta.

Ordainsarien % 3,5eko igoera aurreikusten da, kontuan hartuta Estatuko Negoziazio Mahai Orokorrean Estatuko aurrekontu orokorretan % 2,5eko igoera sartzea erabaki dela. Igoera hori puntu gehigarri bateraino igo ahal izango da, KPI eta BPG nominalari lotutako aldagaien arabera. Gainera, mahaiak % 1,5eko igoera adostu du 2022ko ekitaldiaren kargura, inflazioa konpentsatzeko eta 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorretan onartutako % 2ko igoerarekin bat egiteko. Igoera gehigarri hori sendotu egingo da; eta, beraz, 2023ko igoera oinarri handiago baten gainean aplikatuko da, sor daitezkeen hirurtekoekin batera, zuhertasun-irizpide baten bidez igoera hori planteatzea eragiten duena. Hala ere, 1. kapitulua ehuneko 4,50 handitu da, Elkarkidetza eta Gizarte Segurantzako kotizazioak bezalako gizarte-gastuen gainerako kontzeptuei ez zaielako zenbateko hori gehituko.

2. atala. Gastu arruntak eta zerbitzuetakoak.

2. atala gastu guztien ehuneko 43,09 da, eta ehuneko 45,13 igo da aurreko ekitaldiko hasierako aurreikuspenekin alderatuta.

Atal honetan honako hau azpimarra dezakegu:

- *Azterlan eta lan teknikoen* partida 632.749,21 eurokoa izango da 2023 urterako; eta, besteak beste, honako hauetarako erabiliko da: udalaren gizarte-diagnostikoaren pilotaje-proiekturako, enplegua egonkortzeko eta sendotzeko prozesuen aholkularitzarako eta jarraipenerako, urteko kontuen auditoretzarako, 2023 – 2027 tokiko direktorio berrirako, 20/30 agendaren esparruan egin beharreko lanetarako edo elkarteren batean sortzen den edozein beharizanetarako.
- *Politikariak eta zuzendariak prestatzeko* 58.000 euro aurreikusi dira, alkate eta zinegotzi berriei zuzendutako harrera-programetan.
- *Proiektu eta programetarako* aurreikusitako zenbatekoak 385.165,88 eurokoak izango dira, eta xehetasun handiagoz azalduko dira txostenaren hurrengo atalean.
- *Programa informatikoen mantentze-lanetarako* 42.900 euroko partidak, besteak beste, honako hauek jasotzen ditu: espedientea kudeatzeko sistema eta SIS EUDEL sistema mantentzea, udaleko informazio ekonomikoko sistema edo EUDEL-en web-orriaren hostinga.

3. atala. Gastu finantzarioak.

Kapitulu hau 44.340,00 euroz hornitu da, eta Ertzilla kaleko aurreko ekitaldietan egindako erosketarako hipoteka-maileguaren interesengatiko gastuei dagokie. Kapitulu hori ehuneko 503,36 handituko da 2022ko hasierako aurreikuspenekin alderatuta, 2023ko ekitaldirako Euriborraren igoeraren aurreikuspena dela-eta.

4. atala. Transferentzia arruntak.

Transferentzia arrunten atala 22.636,50 eurokoa da.

Euskaltzaindiarekin sinatutako toponimia-hitzaermenari dagokion gastua 15.000 eurokoa izango da; 7.067 euro emango dira EUDEL-FEMPen arteko lankidetzaren hitzaermenaren kontzeptuan, eta Euskaliten kolaboratzaile-kuota, 267 eurokoa, eta Innobasqueren kuota ere, 302,50 euro, jasoko dira.

6. atala. Inbertsio errealak.

Kapitulu honetan, guztira 12.000 euroko inbertsio materialak jasotzen dira. 6.000 euro altzariei eta tresnei dagozkie, eta 6.000 euro informazioa prozesatzeko ekipoei.

Era berean, EUDELen web-orria 20.000 eurotan eguneratzea aurreikusten da.

9. atala. Pasibo finantzarioak.

9. kapitulari dagokion zenbatekoa 231.428,00 eurokoa da, eta kapitulu honetan ehuneko -41,91 murriztu da aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuta, Colon de Larreategi 35eko lonja erosteko maileguaren behin betiko amortizazioa dela-eta.

GASTUEN AURREKONTUAREN ANALISIA, PROGRAMEN ARABERA

Hona hemen 2023ko gastuen aurrekontuaren banakatzea, programen arabera:

* Zenbatekoak, eurotan adierazita

	HASTAPENeko AURREKONTU KREDITUAK 2022	HASTAPENeko AURREKONTU KREDITUAK 2023	Aldaketa %
ADMINISTRAZIO OROKORRA	2.673.573,19	3.007.627,83	% -2,66
PRESTAKUNTZA	44.650,00	109.545,88	% 145,34
GIZARTE-ZERBITZUAK	50.000,00	50.000,00	% 0,00
BERDINTASUNA	114.800,00	122.800,00	% 6,97
EUSKARA	48.500,00	48.500,00	% 0,00
UDALERRI TXIKIAK	18.500,00	18.500,00	% 0,00
PROIEKTU EUROPARRAK (GOBERNANTZA)	50.820,00	50.820,00	% 0,00
GUZTIRA	3.000.843,19	3.407.793,71	% 13,56

Programa horietatik, honako hau nabarmentzen da:

Administrazio Orokorraren programan Elkarteari, oro har, eragiten dioten jardueri dagozkien gastuak sartzen dira. Gastu-bolumen handiena duen programa da, 3.007.627,83 eurokoa.

632.749,21 euro aurreikusi dira *azterlan eta lan tekniko*en partidan.

Halaber, Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioarekin sinatutako lankidetzak hitzarmenari dagokion ekarpena aurreikusten da.

Prestakuntza-programan 109.545,88 euroko aurrekontu-zuzkidura aurreikusten da. Aurrekontu-zuzkiduratik, 25.000 euro Toki Zuzenbidearen Euskal Mintegira bideratuko dira, 58.000 euro hautatutako alkateei eta zinegotziei eta udaletako zuzendariei zuzendutako laguntza programetan prestatzeko, 8.545,88 euro lidergo-prestakuntzarako eta 18.000 euro sinplifikazio-proiekturako (izapideen eskuliburua).

Gizarte-zerbitzuen programan, Eusko Jaurlaritzak finantzaturako etorkinentzako itzulpen-zerbitzuari jarraipena emateko, eutsi egiten zaio aurreko ekitaldiko 50.000 euroko zenbatekoari, zerbitzuaren estaldura bermatuko duen enpresa kontratatzeko, aurreikusitako gastuaren ehuneko 10eko langile-gastuez gain.

Berdintasun programan, Berdinsarea sarea eta Berdinbidean programa lantzen jarraituko dugu. 102.800 euroko guztizko zuzkiduratik, EUDELeke egindako ekarpena 18.000 eurokoa gehi arloko teknikariaren gastuei dagokiena izango da, eta 84.800 eurokoa Emakunderena. Halaber, 20.000 euro aurreikusten dira 20/30 agendaren esparruko berdintasun-jardueretarako.

Euskara programan, 2023rako 48.500 euroko gastua aurreikusten da; horietatik 28.000 euro Eusko Jaurlaritzarekin udaletan Euskara sustatzeko ekintza-planak diseinatu eta garatzeko egindako hitzarmena betetzeko erabiliko dira, 15.000 euro Euskaltzaindiarekin toponimiari buruzko hitzarmenean hartutako betebeharrei aurre egiteko eta 5.500 euro programaren gastu osagarrietarako.

Udalerrri txikien programan, dirulaguntzei eta udal-intereseko arau-aldaketei buruzko datu-basearen zerbitzua mantentzen da (Infoudala). 18.500 euroko zuzkidura aurreikusten da, EUDELe baliabide propioekin finantzaturakoa, oso-osorik.

Proiektu europarrei buruzko programa 50.820 euroz hornituko da. ELoGEren proiekturako, gobernantza onaren arloko bikaintasunera bideratua, erabiliko da zenbateko osoa; eta parte hartzen duten udaletatik aurreikusten diren ekarpenekin finantzaturako da.

ONDORIOAK

2023rako, diru-sarrera eta gastuetan parekatuta dago aurrekontua, eta 3.407.793,71 eurokoa da; hau da, aurreko ekitaldiko hasierako aurreikuspenekin alderatuta, ehuneko 13,56 handiagoa.

Diru-sarrerei buruz:

- Udal Finantzaketarako Foru Funtsen ehuneko 0,15etik datozen diru-sarreraren gainean, lurralde bakoitzeko Finantzen Lurralde Kontseiluetan zehaztutako 2023ko ekitaldiko hasierako aurreikuspenak kontuan hartuta kalkulatu da.
- Udal bazkideen kuotak mantendu egingo dira, eta Colón de Larreategi kaleko 35. zenbakian dagoen higiezinaren alokairuagatik diru-sarrerak jasotzen jarraitzea aurreikusten da.
- Toki Zuzenbideari buruzko Euskal Mintegiari dagokionez, exekuzioan matrikulak kobratuz finantzatu ohi den programa bat bada ere, EUDELek aurreikusitako gastuaren ehuneko 20ko ekarpena egitea aurreikusten da, eta ehuneko 80koa matrikulen kargura.
- Halaber, Eusko Jaurlaritzaren eta Emakunderen dirulaguntzak jasotzen jarraitzea aurreikusten da, honako programa hauei dagokienez: Berdintasuna (84.800 €), Euskara (28.000 €) eta Gizarte Zerbitzuak (55.000 €).
- ELoGEren proiektuarekin, gobernantza onaren arloko bikaintasunera bideratua, jarraitzeko diru-sarrerak aurreikusten dira, eta parte hartzen duten udalen 50.820 euroko ekarpenetan gauzatuko dira.

Gastuei buruz:

Gastu-aurrekontuaren ehuneko 55,31 langile-gastuen (ehuneko 47,22) eta hipoteka-maileguen (ehuneko 8,09) artean banatzen da.

Ondasun eta zerbitzuen erosketari buruzko atalean (%43,09), gastu arruntaz gain, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- Azterlan eta lan teknikoen partida 2023rako 632.749,21 eurokoa izango da, eta, besteak beste, honako hauetarako erabiliko da: udalaren gizarte-diagnostikoa pilotatzeko proiekturako, enplegua egonkortzeko eta sendotzeko prozesuen aholkularitzarako eta jarraipenerako, urteko kontu-auditoretzarako, 2023 — 2027 tokiko direktorio berrirako edo 20/30 agendaren esparruan egin beharreko lanetarako.
- Kargu politikoak eta zuzendaritzako karguak osatzeko 58.000 euroko partida, hurrengo toki-hauteskundeetan aukeratzeko diren pertsonak hartzeko programetarako.

- Programa informatikoak mantentzeko 42.900 euroko partidak, besteak beste, espedienteak kudeatzeko sistema eta SIS EUDEL sistema, udaleko informazio ekonomikoko sistema edo EUDELen web-orriaren hostinga mantentzea aurreikusten du.
- Proiektu eta programetarako aurreikusitako zenbatekoak 385.165,88 eurokoak izango dira.

Inbertsio errealei dagokienez, ehuneko 52,38ko igoera aurreikusten da aurreko ekitaldiarekiko. Altzarietan eta tresnetan inbertitzea aurreikusten da (6.000 euro), eta beste 6.000 euro aurreikusi dira informazioa prozesatzeko ekipoetan (ekipo informatikoak berritzea). Era berean, EUDELen webgunea eguneratzea aurreikusten da (20.000 euro ostaturako, ordu-poltsa mantentzeko eta diseinu berri bat aztertzeko).

ERANSKINA

2023KO AURREKONTUEN PROIEKTUA DIRU-SARREREN EGOERA

Eurotan

SAILKAPEN EKONOMIKOA	DESKRIBAPENA	HASIERAKO AURREIKUSPENA K 2022	HASIERAKO AURREIKUSPENA K 2023	Dif % 2023 / 2022
		3.000.843,19	3.407.793,71	% 13,56

3		TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK	15.300,00	22.500,00	% 47,06
	399	Askotariko bestelako diru-sarrerak	15.300,00	22.500,00	% 47,06
	39901	Diru-sarrerak Jardunaldiengatik	12.800,00	20.000,00	% 56,25
	39902	Beste diru-sarrera batzuk	2.500,00	2.500,00	% 0,00

4		TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.928.256,62	3.321.396,08	% 13,43
	41	Euskal Autonomia Erkidegokoak	2.928.256,62	3.321.396,08	% 13,43
	410	Administrazio Orokorra	179.800,00	167.800,00	% -6,67
	41001	Berdinsarea-Berdinbidean. Emakunde	84.800,00	84.800,00	% 0,00
	41002	Euskara Hitzarmena. Eusko Jaurlaritza	28.000,00	28.000,00	% 0,00
	41003	20/30 Agenda Berdintasuna. Emakunde.	12.000,00	0,00	% -100,00
	41004	Immigr. Itzulpen hitzarmena. Eusko Jaurlaritza.	55.000,00	55.000,00	% 0,00
	416	Foru Aldundiak eta beste Foru Erakunde batzuk	2.405.844,61	2.810.984,07	% 16,84
	41601	Arabakoa. zerga-partaidetza zehatza	314.907,23	395.457,91	% 25,58
	41602	Bizkaikoa. zerga-partaidetza zehatza	1.321.623,60	1.501.441,77	% 13,61
	41603	Gipuzkoakoa. zerga-partaidetza zehatza	769.313,78	914.084,39	% 18,82
	417	Tokiko erakundeak	342.612,01	342.612,01	% 0,00
	41701	EUDELeke bazkideen kuotak	291.792,01	291.792,01	% 0,00
	41702	Gobernantza proiektuaren ekarpenak	50.820,00	50.820,00	% 0,00

5		ONDARE-SARRERAK	57.286,57	63.897,63	% 11,54
	54	Ondasun higiezin errentak	57.286,57	63.897,63	% 11,54
	540	Hiri-finken errentamendua	57.286,57	63.897,63	% 11,54
	540	Hiri-finken errentamendua	57.286,57	63.897,63	% 11,54

2023KO AURREKONTUEN PROIEKTUA
GASTUEN EGOERA

Eurotan

SAILKAPEN EKONOMIKOA	DESKRIBAPENA	HASTAPENEKO AURREKONTU KREDITUAK 2022	HASTAPENEKO AURREKONTU KREDITUAK 2023	Aldaketa % - 2023 / 2022
		3.000.843,19	3.407.793,71	% 13,56

1		LANGILE-GASTUAK	1.539.787,98	1.609.106,04	% 4,50
	11	Behin-behineko langileak	64.124,49	67.374,38	% 5,05
	110	Behin-behineko langileen ordainsariak	64.124,49	67.374,38	% 5,05
	13	Lan-kontratuko langileak	1.132.746,04	1.189.978,03	% 5,05
	130	Lan-kontratuko langile finioen ordainsariak	1.132.746,04	1.189.978,03	% 5,05
	16	Kuotak, prestazioak eta gastu sozialak enplegatzailearen kontura	342.917,45	351.919,01	% 2,62
	160	Gizarte-kuotak	325.121,47	332.919,01	% 2,40
	16001	Gizarte Segurantza	287.527,85	298.338,39	% 3,76
	16004	Elkarkidetza kuotak	37.593,62	34.580,62	% -8,01
	163	Lan-kontratuko langileen gizarte-gastuak	17.795,98	19.000,00	% 6,77
	16301	Langileen prestakuntza	8.000,00	8.000,00	% 0,00
	16305	Bizitza- eta istripu-seguruak	9.795,98	11.000,00	% 12,29

2		ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA	1.011.695,35	1.468.283,17	% 45,13
	20	Errentamenduak	8.328,83	8.538,42	% 2,52
	201	Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	2.328,83	2.538,42	% 9,00
	20101	Garaje plazen errentamenduak	2.328,83	2.538,42	% 9,00
	203	Garraio-materiala	6.000,00	6.000,00	% 0,00
	20301	Garraio-tresnen errentamendua	6.000,00	6.000,00	% 0,00
	21	Mantentze-eta kontserbatze-konponketak	3.000,00	3.000,00	% 0,00
	214	Altzarien konponketak	3.000,00	3.000,00	% 0,00
	22	Materiala, hornidurak eta bestelakoak	970.366,52	1.426.744,75	% 47,03
	220	Bulegoko materiala	16.020,00	17.011,80	% 6,19
	22001	Bulegoko materiala	10.500,00	11.445,00	% 9,00
	22002	Prentsa, aldizkaria, liburuak eta beste argitalpen batzuk	5.000,00	5.000,00	% 0,00
	22003	Material informatiko inbentariaezina	520,00	566,80	% 9,00

SAILKAPEN EKONOMIKOA	DESKRIBAPENA	HASTAPENENKO AURREKONTU KREDITUAK 2022	HASTAPENENKO AURREKONTU KREDITUAK 2023	Aldaketa % - 2023 / 2022
221	Hornidurak	17.304,00	18.861,36	% 9,00
22101	Energia elektrikoaren hornidurak	16.480,00	17.963,20	% 9,00
22102	Ur-hornidurak	824,00	898,16	% 9,00
222	Komunikazioak	35.000,00	68.067,50	% 94,48
22201	Telefono bidezko komunikazioak	25.750,00	28.067,50	% 9,00
22202	Posta bidezko komunikazioak	9.250,00	40.000,00	% 332,43
224	Eraikinetako aseguruaren sariak	7.500,00	8.175,00	% 9,00
225	Zergak	3.000,00	3.000,00	% 0,00
226	Askotariko gastuak	181.312,00	110.582,00	% -39,01
22602	Protokolo eta ordezkapen gastuak	1.000,00	1.000,00	% 0,00
22603	Publizitatea eta komunikazioa	38.312,00	62.142,00	% 62,20
2260301	Publizitatea eta propaganda	1.000,00	1.000,00	% 0,00
2260302	Prensa eta komunikazio zerbitzuak	19.312,00	32.342,00	% 67,47
2260303	UDALA aldizkaria	12.500,00	12.800,00	% 2,40
2260304	Argitalpenak	2.500,00	10.000,00	% 300,00
2260305	Webgunearen mantentzea	3.000,00	6.000,00	% 100,00
22604	Defentsa juridikoa	6.000,00	6.000,00	% 0,00
22605	Bilerak eta hitzaldiak	119.000,00	23.000,00	% -80,67
22607	Askotariko gastuak	1.000,00	1.000,00	% 0,00
22609	Funts bibliografikoak	16.000,00	17.440,00	% 9,00
227	Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak	397.960,52	815.881,21	% 105,02
22701	Garbiketa-enpresetako lanak	40.000,00	43.600,00	% 9,00
22707	Azterlan eta lan teknikoak	231.780,52	632.749,21	% 172,99
22710	Posta-zerbitzuak	2.000,00	2.180,00	% 9,00
22711	Programa informatikoen mantentzea	37.380,00	42.900,00	% 14,77
22712	Jardunaldiak eta mintegiak	5.000,00	5.000,00	% 0,00
22713	Jabeen komunitateen kuotak	32.800,00	35.752,00	% 9,00
22714	Euskara Barne Plana	3.000,00	3.000,00	% 0,00
22715	Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak	8.000,00	10.000,00	% 25,00
22716	Itzulpen zerbitzuak	30.000,00	32.700,00	% 9,00
22718	Berdintasun Plana	8.000,00	8.000,00	% 0,00
228	Proiektuak eta programak	312.270,00	385.165,88	% 23,34
22801	Udalerrri txikietako Aseguru Zerbitzuak (INFOUDALA)	18.500,00	18.500,00	% 0,00
22802	Tokiko Zuzenbidearen Euskal Mintegia	16.000,00	25.000,00	% 56,25
22803	Politikarien eta zuzendarien prestakuntza	3.000,00	58.000,00	% 1.833,33
22804	Prestakuntza - laguntza-programak	18.000,00	18.000,00	% 0,00
22805	Lidergoaren prestakuntza	7.650,00	8.545,88	% 11,71

SAILKAPEN EKONOMIKOA	DESKRIBAPENA	HASTAPENENKO AURREKONTU KREDITUAK 2022	HASTAPENENKO AURREKONTU KREDITUAK 2023	Aldaketa % - 2023 / 2022	
	22806	Proiektu Europarrak	50.820,00	50.820,00	% 0,00
	22807	Berdintasuna Berdinsarea / Baskeskola	102.800,00	102.800,00	% 0,00
	22808	Berdintasuna agenda 20/30	12.000,00	20.000,00	% 66,67
	22809	EUDEL euskara	33.500,00	33.500,00	% 0,00
	22811	Immigrazio Itzulpen Zerbitzuak	50.000,00	50.000,00	% 0,00
23		Zerbitzuagatiko kalte-ordaina	30.000,00	30.000,00	% 0,00
	230	Mugimendu eta garraio pertsonalerako dietak	15.000,00	15.000,00	% 0,00
	231	Goi-karguen mugimendu eta garraiorako dietak	15.000,00	15.000,00	% 0,00

3		GASTU FINANTZARIOAK	7.348,85	44.340,00	% 503,36
	33	L/Pri egindako maileguetakoak	7.348,85	44.340,00	% 503,36
	331	L/Pri egindako maileguen interesak	7.348,85	44.340,00	% 503,36

4		TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	22.636,50	22.636,50	% 0,00
	48	A fam. e inst. sin fines de lucro	22.636,50	22.636,50	% 0,00
	481	Irabazi-asmorik gabeko familiei eta erakundeei	22.636,50	22.636,50	% 0,00
	48101	Hitzarmena FEMPeKin	7.067,00	7.067,00	% 0,00
	48102	Hitzarmena EUSKALTZAINDIArekin	15.000,00	15.000,00	% 0,00
	48103	Hitzarmena EUSKALITekin	267,00	267,00	% 0,00
	48104	Innobasque Kuota	302,50	302,50	% 0,00

6		INBERTSIO ERREALAK	21.000,00	32.000,00	% 52,38
	62	Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako inbertsioa	21.000,00	12.000,00	% -42,86
	625	Altzariak eta tresnak	11.000,00	6.000,00	% -45,45
	62501	Altzariak	1.000,00	1.000,00	% 0,00
	62502	Bulego-ekipoak	10.000,00	5.000,00	% -50,00
	626	Informazioa prozesatzeko ekipoak	10.000,00	6.000,00	% -40,00
	64	Inbertsio ez-materialetakoko gastuak	0,00	20.000,00	% 100,00
	644	Aplikazio informatikoetako gastuak	0,00	20.000,00	% 100,00
	64401	Programetako inbertsioak	0,00	20.000,00	% 100,00

9		PASIBO FINANTZARIOAK	398.374,51	231.428,00	% -41,91
	93	L/P Maileguen Amortizazioa	398.374,51	231.428,00	% -41,91

SAILKAPEN EKONOMIKOA		DESKRIBAPENA	HASTAPENEKO AURREKONTU KREDITUAK 2022	HASTAPENEKO AURREKONTU KREDITUAK 2023	Aldaketa % - 2023 / 2022
	931	Sektore publikotik kanpokoak	398.374,51	231.428,00	% -41,91
	93101	L/P Colón de Larreategiko maileguaren amortizazioa	150.098,39	0,00	% -100,00
	93102	L/P. Ercillako maileguaren amortizazioa	248.276,12	231.428,00	% -6,79

Batzorde Eragileak 2022ko urriaren 13ko bilkuran onetsitako proiektua.